



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Udan pantaila txikian ikusitako onena

Under the Bridge

DISNEY +

“Under the Bridge” ikusten ari nintzela, “Mare of Easttown”, “The Killing” edota “Sharp Objects” telesailak etorri zaizkit burura; antzekotasunak dituzte. Benetako kasu batean oinarritzen den miniseriea da honako hau; 1997an Kanadako Victoria hirian Reena Virk ize-neko gaztea desagertu eta ordu gutxira hilik azaldu zen. Susmagarri nagusiak inguruan dituen lagunak dira; susmagarriak izateaz gain, ez du te ahuldurarik azaltzen.

Askok harrapatzen duen trauma nagusi horren muinean, biziki interesgarria iruditu zaidan ikuspegi soziologiko bat ere eskaintzen du miniserie honek. Sistema eta gizarte akastun batek babesik gabe utzi dituen nerabeen bizitza birrindua erakusten du. Helduak Reenaren hilketaren basakeriari zentzua ematen saiatzen ari diren bitartean, telesailak gazteen perspektibak eta esperientziak ezagutzera gonbidatzen gaitu, eta horrek, ezinbestean, krimenean nahasita dauden gazteak

lkasturte berria hastear den honetan, udazkeneko estreinaldiak ate joka ari dira dagoeneko. Iritsiko direnei heldu aurretik, ordea, udako motxilan sartutako eduki guztia bildu eta plataforma digitaletan ikusitako onena zerrendatzea pentsatu dut. Honatx, udan pantaila txikian ikusitako onena..

ulertzeko moduan eragiten du. Eta asko txalotzen dudan beste zerbait: indarkeria bisualki ez nabarmentzeko hartutako erabakia. Basakeriaz eta iluntasunez gainezka dago istorioa, latza eta gogorra da, baina “Sambre” telesail bikainean egiten duten moduan, ez da esplizituki ezer ikusten.

Pertsonaia ugari ditu istorioak, baina, Reena Virk hildako nerabeaz gain, Riley Keough eta, batez ere, Lily Gladstone lanak nabarmenduko nituzke. Lehenak Rebecca Godfrey idazlea gorpuzten du –telesailak oinarri hartu duen liburuaren idazlea–; idazketa prozesuan murgilduta dago eta jaioterrira itzuli-ko da elkarriketa eta ikerketen bidez liburua osatzera. Herri txiki bateko nerabeen

ezkutuko munduan sakon murgilduko da. Bigarrenak, Scorseseren “Killers of the Flower Moon” filmean deskribitu nuenak, polizia baten rola jokatzen du; aktore itzela iruditzen zait eta telesailean lan bikaina egiten du.

Presumed Innocent

APPLE TV+


David E. Kelley sortzaile eza-gunak Harrison Ford protagonista duen “Presumed Innocent” film mitikoa pantaila txikira moldatu eta protagonista nagusi gisa Jake Gyllenhaal entzutetsua aukeratu du. Jatorrizko filma ikusi baduzue ere, moldaketa berri honekin gozatuko duzue.

Askok harrapatuko zaituen telesaila da, suspense-giroak ez duelako etenik, baita gidoi-biraketengatik ere, eta interesgarriena ondorengoa da: liburuaren eta filmaren oinarritzko kontzeptuak hartu, eguneratu eta gai eta ideia berriak txertatu ditu Kelley-k gidoian. Emakumezko pertsonaiak, esaterako, askoz garatuagoak daude telesailean eta Barbara-ren pertsonaiari (Sabich-en emaztea) denbora luzea eskaintzen zaio; barne gatazkak erakutsi eta sufritzen dituen alboko kalteak eta ondorioak agerian uzten ditu.

Gainera, pertsonaia nagusiaren nortasuna desberdina da, Forden xalotasuna Gyllenhaalen testosteronak ordezkatu baitu; gizonezkoen ego mugagabea, nartzisismoa edota maskulinitate toxikoa ageri dira, besteak beste. Alderdi psikologikoak presentzia nabarmenagoa du telesailean. Pertsonaia kopurua apur bat murriztearekin batera, istorio bera filmean 125 minututan azaltzen zuten eta hemen, sei ordutan; pertsonaia gutxiago badaude, eta horiei eskaintzen zaien tartea zabalagoa bada, bistakoa da sakontasun askoz handiagoa dutela.

Gidoia zorrotza eta zehatza da; ikusleari eskaintzen zaion informazioaren dosifikazioa oso neurtuta eta zainduta dago, ezinezkoa da hurrengo atala ikusteko gogorik ez izatea. Jake Gyllenhaal-ek du presentzia nagusia eta hamarreko lana egiten du. Anbigutasun etengabea mugitzen da une oro eta bikain eusten dio horri; ez dakigu bera izan den ala ez, baina,





ikusle gisa, bere senide eta in-gurukoei gertatzen zaien mo-duan, pertsonaia horrekiko mesfidantza iraunkorra da. Gainerako aktoreek ere lan ikaragarria egiten dute. Thrillerrak, drama politiko-judizialak eta misterioak gustuko badituzu, hau da ikusi behar duzun hurrengo telesaila.

I Am: Celine Dion

PRIME VIDEO

2022ko abenduan Celine Dion musikariak bizitza profesiona-la eta pertsonala aldatu zion albiste baten berri eman zuen: SPS edota Pertsona Zurruna-ren Sindromea delakoa zuen. Nahasmendu neurologiko eta autoimmunea da, giharretako espasmo jasanezinak eta zu-runtasuna eragin ditzakeena. Artistari sakon eragin dion gaixotasuna da, eta gaur egun ezin du kontzerturik eskaini edo diskorik grabatu.

Irene Taylor Brodsky zine magileak urtebete baino gehia-go eman du abeslaria graba-tzen eta horren testigantza ja-so du “I Am: Celine Dion” dokumental hunkigarrian. Ba-rru-barrutik irtendako konta-kizun honi esker, eta gaixota-sunarekin duen borrokaren berri ematen duen bitartean, narrazioak iraganera eta orai-naldira eramango gaitu. Abes-lari gisa bizi izandako hainbat une ikusiko ditugu, baina bere-ziki izugarri sufritzen ari den

artista baten istorioa erakus-ten du dokumental honek.

Abeslariak, zintzotasun gor-dina erakutsiz, Las Vegaseko bere etxeko ateak ireki ditu –ia konfinatuta bizi da bertan–, eta gardentasun osoz azaltzen eta erakusten du kamera au-rrean pasatzen ari dena. Dion-en elkarrizketa bere ibilbideko zenbait eszena musikalekin tartekatzeak ikustaldia asko arintzen duen arren, batzue-tan astun samarrak iruditu zaizkit, eta horregatik luze sa-marra iruditu zait. Azken ur-teotan sakontasunik gabeko “Fan service” (fan zerbitzua) kiratsa darion lan ugari estrei-natzen ari dira eta zaleak poz-teko eta harrapatzeko elemen-tu merkeak izaten dituzte; zorionez, “I Am: Celine Dion” ez da horietakoa eta ikaragarri eskertu dut. Celine Dion-en musika gustatu ala ez –aitor-tuko dut niri ez zaidala asko gustatzen–, biziki gomenda-tzen dudana da.

Boiling point

MOVISTAR+

2021ean “Boiling Point” filma estreinatu zen. 92 minutu irauten duen sekuentzia-plano bakar batean grabaturiko film itogarria da. Denbora errealean, Londresko modako jate-txe bateko gau bakar bat era-kusten du. Jendez gainezka dagoen jatetxe horretan mur-gilduko gara, eta kamerak



Andy Jones (Stephen Graham) sukalde-buruari jarraituko dio bereziki; guztia pikutara bidali dezakeen krisi pertsonal eta profesional baten erdian dago. Tentsioa eta urduritasuna areagotzen joango dira, eta apurka-apurka irakite-pun-tuan jarriko da guztia.

Bada, film horren amaieratik abiatuta, BBC kateak “Boiling Point” miniseriea estreinatu du, eta jatorrizko aktoreak eta lantaldea mantendu dituzte. Filma nola amaitzen den ez di-zuet esango, baina telesaila sei hilabete geroago girotuta da-goela aurreratuko dizuet, eta Carly-ren pertsonaiari (Vnette Robinson) pisu handiago eman diotela. Edukian, baita forman ere, kontinuista da, baina sekuentzia-plano bakar batean filmatzearen erabaki

arriskutsu hori bazterrean utzi dute oraingoan.

Barne gatazkez josita dau-den pertsonaien bitartez su-kalde frenetiko batean murgil-tzea liluragarria iruditzen zait, badu zerbait magnetikoa. Hori bai, filmean ez bezala, hemen, patxadarako abaguneak ba-daude, pertsonaien arku dra-matikoak oso ondo garatzen laguntzen duten parentesi txi-kiak. Sukalde horretatik kanpo paseatzera aterako gaitu ka-merak, eta bizitza pertsonale-tan sakon murgilduko gara. Paseo horiei esker buruko gai-xotasuna, antsietatea eta al-koholismoa bezalako gaiak agerian geratuko dira. Arnas-gune gehiago dauden arren, estresagarria izaten jarraitzen du, ez pentsa lasaitasunerako tarte handiegirik dagoenik.

Mountain Queen: The Summits of Lhakpa Sherpa

NETFLIX

Dokumentalaren lehen minu-tuetan AEBetako supermerkatu batean lanean ari den 50 urte inguruko emakume baten iru-diak azaltzen dira. Lhakpa Sher-pa da; alpinista eta xerpa nepal-darrak 2022ko apirilean igo zuen Everest hamargarren al-diz, emakume batek inoiz egin duen igoera kopururik handie-na. Heroia Nepalen, langile ano-nimoa Amerikan. Dokumental honek, lortutako balentria era-kustez gain, bere bizitza latza-ren errepaso sakona egiten du.

Filmaren abiapuntua hamar-garren igoera prestatzen ari den unea da; 15 urteko alaba, Shiny, Nepalera joango da bera-rekin, baina 19 urteko Sunny ez, eta aurrerago jakingo dugu zer-gatia. Bidaia horretan, Lucy Walker zuzendariak Lhakpa be-



re bizitzako istorio gogorra kamera aurrean azaltzera gonbidatuko du. Elkarrizketa nagusi horretaz gain, igoeren irudi ikusgarriekin, artxiboko irudiekin eta urteetan zehar egindako elkarrizketekin hornitu dute narrazioa.

Dokumentalak sentsibiltatez eta errespetuz lantzen ditu Lhakuparen sustraiak, baina agerian uzten ditu hain errotuak zeuden patriarkatua eta matxis-moa: umetan ez zioten eskolara joaten uzten eta, emakumeek mendiko gidari gisa lan egitea debekatua zutenez, urte batzuk geroago ilea guztiz moztea erabaki zuen, adibidez, “gizonezko itxura” hartzeko.

George Dijmarescu eskalaztaile errumaniarrarekin ezkondu zen pasartea ere agertzen da, ziurrenik bizitza horren unerik ilunena eta lasgarriena; hasieran dena zen zoragarria, baina urteak igaro ahala etengabeko mehatxu, abusu eta tratatu txarrak jasan zituen. Iluntasun horretan, zaila da, ikusle gisa, aldarre onari eustea, baina ordu eta erdi pasatxoko ikustaldiaren ostean, zutik jarri eta Lhakuparekin Sherpa txalotzeko gogoia ematen du.

Gidoiaren egiturak eta muntatze lanak Lhakuparen ahalduztze prozesua apurka bizitzeko aukera eskaintzen dute. Bere erresilientziak eta izaerak dokumental osoa argiztatzen dute eta bere indarrak laino beltz horiek emeki-emeki urtzen ditu. Emakume aitzindari baten istorio hunkigarria iruditzen zait. Iku-si, ez zarete damutuko.

Megamix brutal

RTVE PLAY / 3CAT

“Max Mix”, “Caribe Mix”, “Maquina Total” eta abar. 80ko eta 90eko hamarkadetako Estatu



espainiarreko musika industrian arrakasta itzela izan zuten bilduma diskoak dira horiek. Hamarkada haietan dozenaka disko argitaratu zituzten, baina gutxi zekiten zer zegoen horren guztiaren atzean. Hiru ataleko “Megamix brutal” dokuserieari esker, Megamix fenomenoaren atzeko historia ilun eta harri-garria ezagutuko dugu. Azpijokoak, estortsioak, iruzurrak, bahiketak eta hilketa-saiakerak dance musikarekin tartekatzen diren bitartean, musika-eszenaren barruan gertatutako ustekabeko kronika beltzaren kontakizun honen lekuko izango zara. Azaltzen den guztia egiazkoa da, nahiz eta mafiosoek buruzko edota Coen anaien film batetik irtendako egoerak diruditen.

Musika dokumentala, *true crime*-a edo biak? Bada, hori da, hain zuzen, lan honen alderdirik sendoen; ezin hobe uztartzen ditu bi azpigenere horiek. Musikazalea bazara, asko gozatu duzu, eta krimen edota istorio ilunekin gozatzen duzun horietakoa bazara, are gehiago. Oso lan dinamikoa da eta ikuserraza, ikaragarri gozatu dut. Era honetako lanetan oso ohiak izaten da atalak etengabe luzatzea eta garrantzitsuak ez diren kontakizunak sartzea; hemen ez, zuzenean muinera jotzen dute eta gertaera garrantzitsuak soilik azaltzen dituzte. Zenbait unetan umorea ere

erabiltzen da, eta horrek arintasunez bustitzen ditu istorioen zenbait pasarte.

Gainera, muntatze-lan oso zehatz eta freskoa erabili dute elkarrizketak, garaiko irudiak, zuzenekoak, bideoklip zatiak eta birsorkuntzak gidoiaren egiturari zehar txertatzeko. Garai hartako ekintza eta elkarrizketen birsorkuntzak nola egin dituzten deigarria iruditzen zait; kontakizunaren benetako protagonistak –elkarrizketatu nagusiak, alegia– aktoreekin eta eraikitako agertokiarekin nahastu dituzte, eta ukitu zinematografiko bitxi eta oso erakargarria ehundu dute.

Sambre

MOVISTAR+

Luze eta zabal hitz egin nuen telesail honi buruz uztailako GAUR 8-n, baina derrigorrez berriro aipatu behar dut, aurten onenatarikoa iruditzen zaidalako. Frantziaren historian emakume gehien bortxatu zituen gizonezkoaren benetako kasua du hizpide; 80ko hamarkadan hasi eta 2018ra arte luzatu zen ikerketa. 30 urtean baino gehiagoan garatutako istorio honetan gizartearen, erakundearen eta, jakina, biktimen bilakaera ikusiko dugu. Poliziaren eta sistema beraren etengabeko akatsak, zaborbakeriak eta mespretxuak agerian geratuko dira. Kronika



oso zehatza osatu du Lestradek; sotila bezain gordina da, biribila bezain aseptikoa, morbo zein sentsazionalismotik ihes egiten duena, eta biktimak narrazioaren erdigunean jartzen dituen.

Alice Géraud-Arfi idazle frantziarraren izen bereko liburuak izan dute oinarri; Lestradek, Marc Herpouxek eta Géraud-Arfik berak osatu duten gidoia biribila iruditzen zait, kasuaren erpin nagusiak ezin hobe pantailaratu dituzte. Atal bakoitza ikerketaren garapenean funtsezkoa izan zen pertsonaia batean zentratzen da, eta gidoiaren egiturak «nor izango ote da kriminala?» galdera hasieratik saihesten du; erasotzailea hasieratik ezagutzen dugu, eta beraz, honako hau ez da “Whodunit” tanke-rako telesaila.

Gainera, bortxatzailearen ekintza kriminalak ez ditu inongo momentutan erakusten, eta haien ondorio latzak baino ez ditugu ikusten. Nola izan zen posible, hain eremu txikian, 30 urtez gizon batek 50 emakume baino gehiago bortxatzea? Galdera horri erantzuna ematen saiatuko den miniserie biribila osatu du Lestradek, eta bortxaketaren kultura gure sisteman zergatik dagoen hain errotuta erakusten du. Ikuspegi berri-tzailea eta narrazio zirrarragarria eskaintzen dituen ezinbesteko obra iruditzen zait.